



FUNDAZIOA

LETRAK

ETA

FUTBOLA

LETRAS & FÚTBOL

OINARRIAK:

1) Idazkiaren aurkezpen egunerako bidaltzen duten 14 eta 18 urte bitarteko Munduko edozein bazterreko gazteek parte hartuko dute.

2) Argitaratu gabekoak edo moldaketak ez diren nahi adina ipuin aurkeztu daitezke. Lanek, gehiezin, bost eta hogeitabost Word orrialdeko luzera izango dute, Times New Roman 12 hizkiz idatziko dira eta tarte bikoitza erabiliko da. Ipuinak euskaraz zein gaztelaniaz idazteko aukera dago.

3) Ipuinek, ondorengo sinopsia abiapuntutzat hartuta, TALISMANAK proposatzen duen kontakizunari jarraipena eman beharko diote:

Bilbao, 2098. Athleticen bigarren mendeurrena. Athleticek lehenengo mailan jarraitzen du baina asko aldatu da futbola azken urteetan: orain emakumeen liga da ezagunena eta gizonezkoen partidak nekez betetzen dira. Laulad 14 urteko mutikoak deskubritu berri du bera dela Athleticeko talismana, bi mendeetan zehar bere familian egon den potere baten azken jabea.

4) Sinatu gabeko ipuinak fundazioa@athletic-club.eus helbide elektronikora bidaliko dira. Aipatutako mezuan ondorengo datuak beharrezkoak izango dira: Izena, adina, posta helbidea, eta adina egiaztatze-ko NAN-aren fotokopia. Adin nagusiko baten datuak ere beharrezkoak izango dira: Parte hartzailearen ama, aita edo legezko tutorea.

5) Ipuinak aurkezteko azken eguna 2019ko urtarrilaren 31a izango da.

6) Irabazleen izenak, Katixa Agirre, Aixa de la Cruz eta Athletic Club Fundazioko ordezkari batek osatutako epaimahaiak erabakiko ditu. Adinaren arabera bi mailatan banatuko dira parte hartzaileak: 14/16 urte bitartekoak eta 17/18 urte bitartekoak. Maila bakoitzeko bi irabazleek, senitar-teko zuzenekin batera (ama, aita, legezko tutoreak, anai-arrebak Ligako partida bat) San Mamesen ikusteko saria jasoko dute.

7) Irabazleen izenak, 2019ko martxoaren 1a baino lehenago, Athletic Clubaren web orrian emango dira jakitera, eta euren ipuinak www.letraketafutbola.com web orrian jarriko den TALISMANAREN argitalpen virtual batean argitaratuko dira.

8) Epaia erantzunezinezkoa da, eta epai-mahaikideek saria eman gabe utzi dezakete.

9) Parte-hartzaileen datuak lehiaketeraren kudeaketarako soilik erabiliko dira eta sariak banatzearekin batera ezabatu egingo dira.